Hondarribiko Udala

APROBADO POR DECRETO 2713/2021, de 20/10/2021
2021/10/20ko 2713/2021 DEKRETUZ ONARTUA

Firmado digitalmente por: MARIA LUISA IZQUIERDO MARCULETA - 15915892F
Fecha y hora: 22.10.2021 10:46:30

Expte.: 2021K1150020

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, HONDARRIBIKO UDALAREN, HONDARRIBIA LANTEN, SAren ETA ARMA PLAZA FUNDAZIOAREN AUDITORETZA LANAK EGITEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA ARAUTUKO DUENA.

I. KONTRATUAREN GAIA

Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko erakundeen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren 34.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki, toki erakundeek lankidetza publikoa edo pribatua lortu ahal izango dute auditoretza publikoak egiteko. Ondorioz, honako lan hauek egiteko zerbitzua ematea de xede kontratu honek:

- Kontu edo finantza auditoretza.
- Legezkotasunaren betetze mailaren auditoretza.
- Auditoretza operatiboa.

Beraz, hauexek dira kontratuaren helburuak: ikuskatuko diren erakundeen kontabilitate, eta hala dagokionean, aurrekontu arloko informazioa aplikagarri den finantza informazioaren araubide esparruaren arabera egoki aurkezten den egiaztatzea; erakunde horiek bideraturiko ekonomia eta finantza arloko kudeaketa ekintzak, jarduketak eta prozedurak aplikagarri diren araubideen arabera garatu diren egiaztatzea; eta kredituen kudeaketan legezkotasunaren betetze maila egiaztatzea.

II. EREMU SUBJEKTIBOA

Auditoretza mota hauek egiteko zerbitzua eman beharko du esleipendunak:
Finantza auditoretza erakunde hauetan:

- Hondarribiko Udala
- Arma Plaza Fundazioa
- Hondarribia Lantzen SA Sozietatea

Legezkotasuna betetze mailaren auditoretza erakunde hauetan:

- Arma Plaza Fundazioa
- Hondarribia Lantzen SA Sozietatea

Auditoretza operatiboa erakunde hauetan:

- Arma Plaza Fundazioa
- Hondarribia Lantzen SA Sozietatea

III. KONTRATUAREN EDUKIA

Lanaren azken emaitza gisa, honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu esleipendunak ekitaldi bakoitzeko:

- **Aurrekontuaren likidazio** egoeraren **finantza auditoretzari buruzko txostena,** aplikagarri den araubide esparruarekin eta, zehazki, aurrekontu alorreko printzipio eta irizpideekin bat etorrita; baita Udalaren ondare/ekonomia alorreko emaitzaren analisia ere.

- **Legezkotasuna betetzeari buruzko auditoretza txostena.** Hondarribia Lantzen SA Sozietateak eta Arma Plaza Fundazioak beren ekonomia/finantza jarduera arautzen duen legezko araubidea bete ote duten azalduko du (legearen arabera jardun izana kontabilitate eta aurrekontu gaietan, kontratazio administratiboetan, hitzarmenak sinatzean, dirulaguntzak ematean eta kudeatzean, langileen kontratu eta gastuetan, zorpetzeetan, sarreren kudeaketan eta ikuskatutako erakundearen ekonomia/finantza jarduera beste edozein alderditan).

- **Auditoretza operatiboari buruzko txostena.** Bertan jasoko dira Arma Plaza Fundazioan eta Hondarribia Lantzen, S.A. Sozietatean egiten diren analisiaren emaitzak, eta hobetzeko proposamenak edo ikuskatutako erakundea eraldatzeko edo deuseztatzeko gomendioak bildu ahal izango ditu.

- Ikuskatutako erakundeen administrazio eta kontabilitate prozedurak hobetzeko ikuskatzaileak egoki iritzitako **iruzkinak eta gomendioak biltzen dituen txostena.**

Gainera, ekitaldiko kontuak ixtean, aholkuak emango dizkie esleipendunak Hondarribiko Udalari, Arma Plaza Fundazioari eta Hondarribia Lantzen, S.A. elkarteari, planteatu litezkeen zalantzak argituko ditu, berrikusi egingo du helarazten zaion dokumentazioa, eta prest egongo da dei egiten zaionean berehalakoan aurkezteko.

Txosten horien egitura, edukia eta tramitazioa Estatuko Administrazioko Kontu Hartzailetza Nagusiak (EAKN) agindutako auditoretza eta finantza kontrolaren alorreko arau teknikoetan finkatutakoaren arabera bideratuko dira.

Txosten eta analisi horiek euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko dira. Zehazki, txosten bakoitzetik bina kopia aurkeztuko dira, sinatuta.

IV. KONTRATUAREN XEDEKO LANEN IRISMENA

1. **Kontu edo finantza auditoretza**: Honako eginkizun hauek bilduko ditu:

Hondarribia Lantzen, S.A. Sozietatearen eta Arma Plaza Fundazioaren finantza egoeren azterketa, egoera horiek erakundeen ondare egoera, operazioen emaitzak eta finantza egoeran izandako aldaketak egokiro islatzen ote duten irizteko, betiere kontabilitate eta aurrekontu alorreko printzipio eta irizpideekin bat etorrita. Hondarribiko Udalari dagokionez, Hondarribiko Udalaren aurrekontuaren likidazioa aplikagarri diren kontabilitate eta aurrekontu alorreko araubide eta printzipioei eta Udalaren ekonomia/ondare emaitzen kontuaren analisiari egokitzen ote zaien aztertuko da. Gainera, honako puntu hauek azalduko dira idatziz:

- Auditoretza prozedurak aplikatzean topatutako mugak.
- Aurreko ekitaldiko auditoretza txostenean azaldutako salbuespenen berariazko adierazpena, salbuespenak gainditu baldin badira, baina baita beren horretan jarraitzen dutenena ere.
- Ahuleziak eta kontabilitate prozedurak hobetzeko xedean ikuskatzaileak egoki deritzon era guztietako gomendioak, ondorioak eta iruzkinak.

2.- **Legezkotasunaren betetze mailaren auditoretza**: Honako eginkizun hauek bilduko ditu:

Hondarribia Lantzen, SA. Sozietateri dagokionez:

- Egiaztatuko du Elkarteak eguneratuta dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Gainera, egiaztatuko du 347 modeloa (hirugarrenekiko betebeharrak), hala dagokionean, 190 modeloa (PFEZ atxikipenak) eta 390 modeloa (BEZari dagokion urteko adierazpena) epe barruan aurkeztu dituela.

- Hala behar badu, langileen alorrean legeak bete dituela egiaztatuko du.

✓ Langile hautaketaren berrikuspena.
✓ Soldataren berrikuspena, aplikagarri den araubidearekin bat etorrita.
✓ Langile gastuen egozte egokia.
✓ Soldata kontzeptu aldakorren berrikuspena.

- Sektore Publikoko Kontratuen Legean obrei begira 40.000,00 eurotik gorako (BEZa kanpo) eta zerbitzu eta hornidurei begira 15.000,00 eurotik gorako (BEZa kanpo) kontratu jada egikarituetan bideratutako prozedurei buruz aurreikusitakoa bete duela egiaztatuko du.

- Kontratu txikiei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 118. artikuluan xedatutakoa bete duela egiaztatuko du.

- Hala dagokionean, dirulaguntzak emateko prozeduren izaera eta araudia egiaztatuko ditu.

- Ondare alorreko salerosketak legearen arabera bideratu direla egiaztatuko du.

✓ Kontabilizazioaren analisia.

- ✓ Ondare operazioen legezko egokitzapena.

Arma Plaza Fundazioari dagokionez:

- Egiaztatuko du Fundazioak eguneratuta dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

- Langileen alorrean legeak bete dituela egiaztatuko du.

- ✓ Langile hautaketaren berrikuspena.
- ✓ Soldataren berrikuspena, araubide publikoarekin bat etorrita.
- ✓ Langile gastuen egozte egokia.
- ✓ Soldata kontzeptu aldakorren berrikuspena.

- Sektore Publikoko Kontratuen Legean obrei begira 40.000,00 eurotik gorako (BEZa kanpo) eta zerbitzu eta hornidurei begira 15.000,00 eurotik gorako (BEZa kanpo) kontratu jada egikarituetan bideratutako prozedurei buruz aurreikusitakoa bete duela egiaztatuko du.

- Kontratu txikiei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 118. artikuluan xedatutakoa bete duela egiaztatuko du. Egiaztapen horiek egiteko, 347 modeloan jasotako informazioaren laginketa teknikak aplikatuko dira.

- Hala dagokionean, dirulaguntzak emateko prozeduren izaera eta araudia egiaztatuko ditu.

Atal honetan sartutako eginkizunak –Legeak bete direla ikuskatzea– laginketa teknikak aplikatuz eraman ahal izango dira burura. Udal Kontu hartzaileak gainbegiratuko du ikuskatzailearen lana, eta beharreko aginduak emango ditu adostutako zerbitzua behar bezala egikaritu dadin.

3.- Auditoretza operatiboa: Honako eginkizun hauek bilduko ditu:

Hondarribia Lantzen, S.A. Sozietateari eta Arma Plaza Fundazioari dagokienez, honako eginkizun hauek egingo dira:

- Gastuak estatutuen helburuetara egokitzen direla egiaztatzea.

- Gastuak eta sarrerak aurrekontuetara egokitzen direla egiaztatzea.

- Horien osaera justifikatu zuten inguruabarrek beren horretan jarraitzen dutela egiaztatzea.

- Horien finantza iraunkortasuna aztertzea.

- Desegiteko arrazoirik ba ote dagoen aztertzea.

V. LANAREN ANTOLAMENDUA

Auditoretza etxeko profesionalek egingo dute ikuskaritza lana, betiere etxe horretako bazkide baten erantzukizunpean eta Udal Kontu hartzailearekin koordinatuta. Nolanahi ere, esleipendunek oro har auditoretza alorreko arau teknikoen arabera eta bereziki sektore publikoko auditoretza arauei jarraiki burutuko dute beren lana.
Lanak aurrera eramateko, ikuskatzaileak ezinbestean egongo dira udal kontu hartzailearekin koordinatuta, eta bi aldeek hala nahi badute, bilerak egingo dituzte tarteka. Gainera, udal Kontu-hartzaileak:

- Lan taldea handitzeko edo murrizteko eskatu ahal izango du txosten arrazoitu baten bitartez.

- Lanetan aplikatzen diren probak, laginak eta gainerako auditoretza teknikak gainbegiratu ahal izango ditu.

- Auditoretza lanaren gaineko kalitate kontrola bideratu ahal izango du.

- Kontratua betetzen dela zainduko du.

Jarduera horiek inolaz ere ez dute zerbitzua etengo, eta beraz, erabateko independentzia izango du ikuskaritza lanez arduratzen den enpresak.

VI. LAN PLANA

Ekitaldian zehar eskatzen diren aholku edo kontsultez gain, hautemandako beharrizanen arabera planeatuko baitira halakoak, honako fase hauek hartuko ditu burura eraman beharreko lanak:

Kontratu honen xedeko lanei ekin baino lehen, esleipendunak Plangintzaren Memoria aurkeztuko dio Kontu hartzaileari, hartan zehaztuko ditu **lan programa** (berrikusi beharreko arloak, erabili beharreko metodologia eta legezkotasunaren esparruan berrikusi beharreko alderdiak) eta **egikaritzeko egutegia**.

Hondarribia Lantzen S.A. Sozietatearen kontuen auditoretzari buruzko lana Administrazio Kontseiluari aldi berean, urteroko kontuen formulazioa eta kontuen auditoretzaren zirriborroa aurrerapen nahikoarekin aurkezteko moduan egin beharko da.

Arma Plaza Fundazioaren kontuen auditoretzari buruzko lana Fundazioaren Patronatuari aldi berean, urteroko kontuen formulazioa eta kontuen auditoretzaren zirriborroa aurrerapen nahikoarekin aurkezteko moduan egin beharko da.

Hondarribiko Udalaren auditoretza finantzarioari buruzko lana irailaren 30a baino lehen burutu beharko da.

Mendeko erakundeen (Hondarribia Lantzen S.A. eta Arma Plaza Fundazioa) Legezkotasuna betetzeari buruzko auditoretza eta auditoretza operatiboaren txostenak, behin-behineko izaerarekin ekainaren 30a baino lehen burutu beharko dira. Behin betiko txostena, irailaren 30a baino lehen burutu eta aurkeztu beharko da.

Azpimarratu behar da, urtero egin beharreko lanak aurreko ekitaldi ekonomikoari dagozkion lanak direla.

VI. ERANTZUKIZUNA

Ikuskaritza lana egiten duen auditoretza enpresaren erantzukizunpean idatziko dira kontuen gaineko auditoretza txostenak, enpresa horrek sinatuko du txostena, eta finkatutako Arau Tekniko eta legezko jarraibideen araberakoa izango da.

VII. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE TEKNIKOAK

Deskribatutako lana egiteko, kontratutik etorritako obligazioak betetzeko behar dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak izango ditu enpresa esleipendunak. Ondorio horiei begira, auditoretza lanaren arduradun/bazkide batek, taldeko ikuskatzaile buru batek eta bi laguntzailek osatuta egongo da lan taldea.

Hondarribiko Udalaren Hizkuntza Politikarako Euskararen Ordenantzaren eta Hondarribiko Udalaren 2013-2017 Euskararen Erabilera Planaren bidez finkatutako irizpideekin bat etorriko da kontratuaren esleipendunak egingo duen hizkuntzaren erabilera.

Bestalde, enpresa esleipendunari idatzizko dokumentazioaren gaztelaniazko bertsioa ere eskatuko dio Udalak, euskarazkoaz gain. Enpresak administrazioarekin izango dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak…) administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz.

Hizkuntzaren ofizialtasun bikoitzaren erregimena bete behar du kontratu honek, eta horrenbestez, euskara eta gaztelania zerbitzuko hizkuntzak izango dira.

VIII. KONTRATUA EGIKARITZEA

Honako jarduera hauek bideratu ahal izango dira auditoretza prozedurak aplikatzeko:

- Ikuskatutako erakundearen ekonomia/finantza kudeaketari zuzenean edo zeharka eragiten dioten era guztietako dokumentuak eta aurrekariak aztertu ahal izango dira.

- Auditoretza egiteko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango da.

- Ikuskatutako erakundearekin zerikusia duten hirugarrengoei eskatu ahal izango zaie erakundeak egindako eragiketei buruzko informazioa.

- Ekonomia/finantza eta kontabilitate alorreko informazioa daukaten sistema informatikoen segurtasuna eta fidagarritasuna egiaztatu ahal izango da.

- Ikuskatutako erakundearen era guztietako aktiboen egiaztapen materialak egin ahal izango dira.

- Ondorioak oinarritzeko zantzuak lortzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein jarduera bideratu ahal izango da.

X. LANEN KONFIDELTZIALTASUNA

Esleipendunak bere lanean zehar ezagutzen duen informazio guztia isilpean edukitzeko obligazioa du, eta ezin izango du informazio hori auditoretza lanak berezkoak dituen helburuekin bat ez datozen xedeetan erabili.

Hondarribiko Udala

Expte.: 2021K1150020

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS A REGIR EN EL CONTRATO DEL SERVICIO DE REALIZACIÓN DE TRABAJOS DE AUDITORÍA DEL AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA, LA SOCIEDAD HONDARRIBIA LANTZEN, S.A. Y LA FUNDACIÓN ARMA PLAZA.

IX. OBJETO DEL CONTRATO

En virtud de lo dispuesto en el artículo 34.1 del Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades de Sector Público Local de Gipuzkoa, las entidades locales podrán recabar la colaboración pública o privada para la realización de las auditorías públicas.
En consecuencia, es objeto del presente contrato la prestación del servicio de realización de los siguientes trabajos:

- Auditoría de cuentas o financiera.
- Auditoría de cumplimiento de legalidad.
- Auditoría operativa.

Por tanto, el objetivo del contrato es verificar si la información contable de las entidades auditadas se presenta adecuadamente según el marco normativo de información financiera, y en su caso presupuestaria, que les resulta de aplicación, y si los actos, operaciones y procedimientos de gestión económico-financiera llevados a cabo por dichas entidades se han desarrollado de conformidad con la normativa legal que les resulta de aplicación, así como el grado de cumplimiento de la legalidad en la gestión de los créditos.

X. ÁMBITO SUBJETIVO

El adjudicatario deberá prestar el servicio de realización de trabajos de los siguientes tipos de auditoría:
Auditoría financiera a realizar en las siguientes entidades:

- Ayuntamiento de Hondarribia
- Fundación Arma Plaza
- Sociedad Hondarribia Lantzen, S.A.

Auditoría de cumplimiento de legalidad a realizar en las siguientes entidades:

- Fundación Arma Plaza
- Sociedad Hondarribia Lantzen, S.A.

Auditoría operativa a realizar en las siguientes entidades:

- Fundación Arma Plaza
- Sociedad Hondarribia Lantzen, S.A.

Hondarribiko Udala

XI. CONTENIDO DEL CONTRATO

El adjudicatario deberá, como resultado final del trabajo, presentar por cada uno de los ejercicios los siguientes documentos:

- **Informe de auditoría financiera**, que recogerá la opinión sobre si las **cuentas anuales** expresan la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la entidad, así como de sus resultados y flujos de efectivo, de acuerdo con el marco normativo que resulte de aplicación y, en concreto, con los principios y criterios contables.

- **Informe de auditoría financiera** del estado de **liquidación del presupuesto**, de acuerdo con el marco normativo que resulte de aplicación y, en concreto, con los principios y criterios presupuestarios; así como, análisis de la cuenta de resultado económico patrimonial del Ayuntamiento

- **Informe de auditoría de cumplimiento de legalidad**, que recogerá la opinión sobre si la Sociedad Hondarribia Lantzen, S.A. y la Fundación Arma Plaza han cumplido, la normativa legal que regula su actividad económico-financiera (adecuación a la legalidad en materia contable y presupuestaria, de contratación administrativa, suscripción de convenios, concesión y gestión de subvenciones, contratación y gastos de personal, endeudamiento, gestión de ingresos y en cualquier otro aspecto de la actividad económico-financiera de la entidad auditada).

- **Informe de auditoría operativa,** en el que se recojan los resultados del análisis realizado en la Fundación Arma Plaza y en la Sociedad Hondarribia Lantzen, S.A, que podrá contener recomendaciones de mejora o propuestas de transformación o supresión de la entidad auditada.

- **Informe con las observaciones y recomendaciones** que el auditor estime oportunas para la mejora de los procedimientos administrativos y contables de las entidades auditadas.

Además, el adjudicatario deberá prestar asesoramiento al Ayuntamiento de Hondarribia, a la Fundación Arma Plaza y a la Sociedad Hondarribia Lantzen, S.A. en el cierre de las cuentas del ejercicio, resolviendo las dudas que se puedan plantear, revisando la documentación que les sea remitida, así como personándose si fueran requeridos a tal efecto.

La estructura, contenido y tramitación de los citados informes se ajustará a lo establecido en las normas técnicas de control financiero y auditoría dictadas por la IGAE.

Los informes y análisis citados deberán presentarse en euskera y castellano. En concreto, se deberán presentar dos copias firmadas de cada informe.

Hondarribiko Udala

XII. ALCANCE DE LOS TRABAJOS OBJETO DE CONTRATACIÓN

1º**. Auditoría de cuentas o financiera**: Comprenderá las siguientes tareas:

Examen de los estados financieros de la Sociedad Hondarribia Lantzen, S.A y la Fundación Arma Plaza, con objeto de opinar sobre si los mismos reflejan adecuadamente su situación patrimonial, los resultados de sus operaciones y los cambios en su situación financiera, de acuerdo con los principios y criterios contables y presupuestarios. En cuanto al Ayuntamiento de Hondarribia, se deberá proceder al examen de la adecuación de la liquidación del presupuesto del Ayuntamiento de Hondarribia a la normativa y principios contables y presupuestarios que resulten de aplicación y al análisis de la cuenta de resultado económico patrimonial del Ayuntamiento. Además, deberán plasmarse por escrito los siguientes puntos:

- Limitaciones encontradas en la aplicación de los procedimientos de auditoría.
- Indicación expresa de las salvedades formuladas en el informe de auditoría del ejercicio anterior que hayan sido solventadas, así como de las que persistan.
- Debilidades, recomendaciones, conclusiones y todo tipo de observaciones que el auditor considere oportunos para la mejora de los procedimientos contables.

2º- **Auditoría de cumplimiento de legalidad**: Comprenderá las siguientes tareas:

En cuanto a la Sociedad Hondarribia Lantzen, S.A.:

- Verificar que la Sociedad está al corriente en sus obligaciones fiscales y con la Seguridad Social. Además, se deberá comprobar que se hayan presentado en plazo los modelos 347 (obligaciones con terceros) en su caso, 190 (retenciones IRPF) y 390 (declaración anual IVA).

- Verificar, en su caso, el cumplimiento de la legalidad en materia de personal. En concreto, en materia laboral se incluyen los siguientes ámbitos:

✓ Revisión de la selección de personal.
✓ Revisión salarial de acuerdo con el marco normativo de aplicación.
✓ Correcta imputación de los gastos de personal.
✓ Revisión de conceptos salariales variables.

- Verificar el cumplimiento de lo previsto en la Ley de Contratos del Sector Público, sobre procedimientos seguidos en contratos ya ejecutados por importe superior a 40.000,00 euros (IVA excluido) para las obras y 15.000,00 euros (IVA excluido) para servicios y suministros.

- Verificar el cumplimiento de lo dispuesto en el art. 118 de la Ley de Contratos del sector Público en relación a los contratos menores. Para efectuar estas comprobaciones se aplicarán técnicas de muestreo de la información contenida en el modelo 347.

- Verificar, en su caso, la naturaleza de los procedimientos y normativa de concesión de subvenciones.

- Analizar el cumplimiento de la legalidad en compraventas patrimoniales. En concreto, deberán examinarse los siguientes aspectos:

✓ Análisis de su contabilización.
✓ Adecuación legal de las operaciones patrimoniales.

En cuanto a la Fundación Arma Plaza:

- Verificar que la Fundación está al corriente en sus obligaciones fiscales y con la Seguridad Social. Además, se deberá comprobar que se hayan presentado en plazo los modelos 347 (obligaciones con terceros) en su caso, 190 (retenciones IRPF) y 390 (declaración anual IVA).

- Verificar el cumplimiento de la legalidad en materia de personal. En concreto, en materia laboral se incluyen los siguientes ámbitos:

✓ Revisión de la selección de personal.
✓ Revisión salarial de acuerdo con el marco normativo público.
✓ Correcta imputación de los gastos de personal.
✓ Revisión de conceptos salariales variables.

- Verificar el cumplimiento de lo previsto en la Ley de Contratos del Sector Público, sobre procedimientos seguidos en contratos ya ejecutados por importe superior a 40.000,00 euros (IVA excluido) para las obras y 15.000,00 euros (IVA excluido) para servicios y suministros.

- Verificar el cumplimiento de lo dispuesto en el art. 118 de la Ley de Contratos del sector Público en relación a los contratos menores. Para efectuar estas comprobaciones se aplicarán técnicas de muestreo de la información contenida en el modelo 347.

- Verificar, en su caso, la naturaleza de los procedimientos y normativa de concesión de subvenciones.

Las tareas incluidas en este apartado – Auditoría de cumplimiento de legalidad – se podrán llevar a cabo aplicando técnicas de muestreo. La Intervención municipal, supervisará la ejecución del trabajo del auditor y dictará las instrucciones necesarias, con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada.

3ª Auditoría operativa: Comprenderá las siguientes tareas:

En cuanto a la Sociedad Hondarribia Lantzen, S.A. y la Fundación Arma Plaza, se deberán llevar a cabo las siguientes tareas:

- Verificar la adecuación de los gastos a los fines estatutarios.
- Verificar la adecuación de los gastos e ingresos a los presupuestos.
- Verificar la subsistencia de las circunstancias que justificaron su constitución.
- Analizar su sostenibilidad financiera.
- Analizar la concurrencia de causas de disolución.

XIII. ORGANIZACIÓN DEL TRABAJO

El trabajo de auditoría será realizado por profesionales de la firma de auditoría, bajo la responsabilidad de un/a socio/a de la misma y en coordinación con la Intervención Municipal. En todo caso, los adjudicatarios deberán realizar su trabajo de acuerdo con las normas técnicas de auditoría en general y las normas de auditoría del sector público en particular.
Para el desarrollo de los trabajos, los auditores mantendrán la necesaria coordinación con la Intervención municipal, pudiendo establecerse, de común acuerdo, reuniones periódicas. Además, la Intervención municipal podrá:

- Solicitar, en informe motivado, ampliación o reducción del equipo de trabajo.
- Supervisar las pruebas, muestras y demás técnicas auditoras que se apliquen en los trabajos.
- Ejercitar el control de calidad de la auditoría.
- Vigilar el cumplimiento del contrato.

Dichas actuaciones en ningún caso podrán interferir en la prestación del servicio para lo cual la empresa auditora gozará de plena independencia.

XIV. PLAN DE TRABAJO

Sin perjuicio de las consultas o asesoramientos puntuales requeridos durante el ejercicio, que serán planteados en función de la necesidad detectada, la realización del trabajo comprenderá las siguientes fases:

Con carácter previo al inicio de los trabajos objeto del presente contrato, el adjudicatario presentará a la Intervención una Memoria de Planificación en la que se detallará el **programa**

de trabajo (áreas objeto de revisión, metodología a utilizar y aspectos a revisar en el ámbito de la legalidad) y el **calendario de ejecución**.

El trabajo relativo a la auditoría de cuentas de la Sociedad Hondarribia Lantzen, S.A. deberá efectuarse con la suficiente antelación como para presentar simultáneamente al Consejo de Administración, la formulación de las cuentas anuales y el borrador de la auditoría de cuentas.

El trabajo relativo a la auditoría de cuentas de la Fundación Arma Plaza, deberá efectuarse con la suficiente antelación como para presentar simultáneamente al Patronato de la Fundación, la formulación de las cuentas anuales y el borrador de la auditoría de cuentas.

El trabajo relativo a la auditoría financiera del Ayuntamiento de Hondarribia deberá emitirse con anterioridad al 30 de septiembre.

Los informes de auditoría de legalidad y auditoría operativa de los entes dependientes (Sociedad Hondarribia Lantzen, S.A. y Fundación Arma Plaza) deberán emitirse, con carácter provisional, con anterioridad al 30 de junio. El informe definitivo, se emitirá y entregará con anterioridad al 30 de septiembre.

Señalar, que los trabajos de auditoría a realizar en cada año serán los correspondientes al ejercicio económico anterior.

XV. RESPONSABILIDAD

Los informes de auditoría de cuentas se emitirán bajo la responsabilidad de la empresa auditora que hubiera realizado el trabajo de auditoría, quien firmará el informe y quedará sujeto a las prescripciones legales y Normas Técnicas de auditoría establecidas.

XVI. MEDIOS HUMANOS Y TÉCNICOS

Para la realización del trabajo descrito, la empresa adjudicataria dispondrá de los medios humanos y técnicos necesarios para cubrir las obligaciones derivadas del contrato. A estos efectos, el equipo de trabajo constará al menos de un socio/a responsable de la auditoría, un/a auditor/a-jefe/a de equipo y dos ayudantes.

La utilización de la lengua por parte del adjudicatario del contrato será acorde a los criterios establecidos a través de la Ordenanza del Euskara para la Política lingüística y del Plan del Uso del euskera 2013-2017 del Ayuntamiento de Hondarribia.

El Ayuntamiento le solicitará a la empresa adjudicataria la versión en castellano además de la de euskera de la documentación. Las relaciones escritas y verbales con la administración (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas…) se ajustarán a la lengua de trabajo de la administración, es decir al euskera.

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística, por lo que el euskera y el castellano serán lenguas de servicio.

XVII. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

Para la aplicación de los procedimientos de auditoría se podrán llevar a cabo las siguientes actuaciones:

- Examinar todos los documentos y antecedentes de cualquier tipo que afecten directa o indirectamente a la gestión económico-financiera del ente auditado.
- Requerir toda información y documentación que se considere necesaria para el ejercicio de la auditoría.
- Solicitar a los terceros relacionados con la entidad auditada información sobre operaciones realizadas por aquella.
- Verificar la seguridad y fiabilidad de los sistemas informáticos que soporten la información económico-financiera y contable.
- Efectuar las comprobaciones materiales de cualquier clase de activos del ente auditado.
- Cualquier otra actuación que se considere necesaria para obtener evidencias en las que fundamentar las conclusiones.

XVIII. CONFIDENCIALIDAD DE LOS TRABAJOS

El adjudicatario estará obligado a mantener el secreto de cuanta información conozca en el ejercicio de su actividad, no pudiendo hacer uso de la misma para finalidades distintas de las de la propia auditoría.

Documento firmado electrónicamente

BUSCA FERNANDEZ LAURA - 72526672J

Firmado digitalmente por BUSCA FERNANDEZ LAURA - 72526672J
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, serialNumber=IDCES-72526672J, givenName=LAURA, sn=BUSCA FERNANDEZ, cn=BUSCA FERNANDEZ LAURA - 72526672J
Fecha: 2021.10.13 12:45:33 +02'00'